

Hizkuntza Politikaren Plan Estrategikoa (2016-2019)

Partaidetza Prozesua

Bilera-mota	Sektore-bilera: EUSKARA
Eguna	2016-11-07
Ordua	17:00-19:00
Lekua	Iruñea, NAPI egoitzan

Bertaratutakoak
Oscar Zapata (Topagunea)
Joana Eguillor Francos (Burlatako zinegotzia)
Naiara Ibero Egaña (Aranguren Ibarreko Udaleko)
Aritz Ayesa (Iruñerriko Mankomunitatea)

Euskarabidetik: Paula Kasares

Elhuyarretik: Idoia Aldekoa

Gai zerrenda

- Ongietorria
- Plan Estrategikoaren hasierako idatzaldia aurkeztea
- Sektorekako lanketa: elkar ezagutzea eta talde-lana
- Balorazioa eta agurra

Bileran egindakoa

Euskarabideko Paula Kasaresek egin die ongietorria hurbildutako eragile guztiei. Ongietorria eta Planaren aurkezpena modu bateratuan egin ditugu, euskara arloko eragileak eta hezkuntza arloko eragileak elkartuz. Paulak Plan Estrategikoaren prozesuaren nondik norakoak eta Planaren markoa azaldu du lehenbizi, eta ondoren, Elhuyarreko teknikaria den Jon Abrili eman dio hitza, planaren helburuak aurkezteko. Aurkezpena egin bitartean, parte-hartzaileek lanketa-fitxa izan dute eskuartean oharrak jasotzeko. Lanketa-fitxak honakoa jasotzen zuen: *Erantsiko nuke.../ Zalantza eragiten dit.*

Aurkezpenaren ondoren, sektoreka banatu gara eta sektore bakoitzeko eragileak gela desberdinetara joan gara sektorearen lanketa propioa egiteko.

Behin arlo bakoitzeko eragileak elkartuta, elkar ezagutzeko izen-erronda egin dugu. Jarraian,

euskara alorrarekin erlazionatzen diren helburuen dokumentua banatu dugu (18 helburu jasotzen dituen) eta talde txikian honako galderen gainean jardun dugu lanean:

- Zerbait erantsiko zenuke? Zerbait faltan botatzen duzue?
- Zerbaitek zalantza eragin dizue?

	EUSKARA arloari lotutako HELBURUAK:
1.1.	Euskararen gizarte erabilera handitzea, erabilera sustatuz eta hizkuntza ulertzen badute ere mintzatzeko ohiturarik ez duten hiztunak aktibatuz.
1.2.	Euskaraz eskolatu diren gazteen harreman ez-formaletan eta lagunartekoetan euskararen erabilera handitzea.
1.3.	Komunikaziorako tresna teknologikoak euskararen gizarte erabilera emendatzeko inbertsio estrategikotako jotzea, euskararen erabilera beste edozein hizkuntzarena bezain erraza eta samurra eginez.
1.4.	Euskarazko hedabideen eskaintza, bai eta nagusiki erdaraz diren hedabideetan euskarak duen tokia ere, zabaltzea, herritarren euskararen kontsumoa berretzeko.
1.5.	Eskolaz kanpoko jarduerak eta, oro har, aisialdi antolatua esparruak haur-gaztetxoek hizkuntza portaeretan duen eraginkortasuna hobetzea, beraien artean euskaraz egiteko ohitura sortu eta sendotzeko.
1.6.	Merkataritzan, zerbitzu profesionalean eta enpresetan euskararen erabilera hedatzen duten ekimenak garatzea, norbanakoei euskaraz lan egitea errazten dietenak, euskara komunikazioetan sartzen dutenak, euskarazko eskaintza ikusgarri egiten dutenak eta euskara hizkuntza paisaian ohiko egiten dutenak.
1.8.	Udalerri euskaldunek eta, oro har, euskararen arnasguneek Nafarroarako duten balio kualitatiboa aintzatestea; aurrerantzean ere euskarak eskualde horietako gizarte-bizitza eratzen duen elementua izaten segi dezan.
1.9	Nafarroako euskalkiak eta euskararen aldaerak zaintzea, garatzea eta hedatzea herritarrek ezagutu, balioetsi eta erabil ditzaten.
2.2.	Haurrak eta nerabeak euskarazko hiztun bilakatzeko eta euskaraz sozializatzeko prozesua sendotzea eskolaz kanpoko arloetan, batik bat aisialdi, kirol eta kultura jardueretan; haur- gaztetxoek euskaraz berez, aise eta eroso komunikatzeko.
2.3.	Familien barneko harremanetan euskararen erabilera handitzea, euskaraz eskolatzen diren haurren eta gurasoen arteko harremanetan euskara sartzea, horiendako guztiendako hizkuntza ikastearen eta erabiltzeko motibazioaren indargarria izateko.
2.4.	Helduen euskalduntzea Nafarroa osoan bermatzea euskara ikasi edo hobetu nahi duen orok egin ahal izan dezala baldintzarik hoberenetan, hiztun aktibo bilakatu bitartean laguntzen zaiola.
2.5.	Kanpotik Nafarroara etorritako herritarrei euskara ikas dezaten sustatzea, eta horretarako modua ematea, haiek eta haien seme-alabek euskara lagungarria izan baitezakete bertakotzeko eta bizimodua hobetzeko.

4.1.	Euskararen irudia eta prestigioa hobeki kokatzea, euskarak Nafarroaren balio positiboekin eta etorkizuneko balioekin duen lotura azkartuz.	Ondoren, talde handian konparatutako txikieta n hausnartutakoa. Saioa
4.2.	Euskara bere errealitatekin urrun sentitzen duen populazio nafarrari hizkuntza hori hurbiltzea.	
4.4.	Informazio eta komunikazio teknologiak euskararen berezko garapen-hobi bihurtzea, euskara eta modernitatea estuago estekatzeko estrategiatzat.	
5.1.	Euskara Nafarroaren ekonomiaren eragile bilakatuko duten ekimenak garatzeko oinarriak ezartzea, euskarak ondare materiagabetzat duen balio paregabea eta mintzairatako dituen ezaugarriak (komunikatzeko, informatzeko eta ezagutza zabaltzeko bidea, arte hizkuntza...) Nafarroako sektore ekoizle, teknologiko eta berritzaileei lotuz.	
5.3.	Euskara balio erantsiko elementua den arlo ekonomikoetan negozio aukerak sustatzea, Nafarroarako irabaziak eta garapen ekonomikoa ekarriko dituztenak.	
6.3.	Euskarak Nafarroan duen egoera soziolinguistikoa, orokorra nahiz arlokakoa, ezagutzeko datuak eskuratzea gizarteari eskaintzeko eta hizkuntza politika aldi oroz euskararen errealitatearen gaineko informazio oso eta eguneratua oinarritzeko.	

bukatzeko, balorazioa egin dugu eta hurrengo urratsak zein izango diren gogoratu ditugu.

Bileran jasotako iritziak eta ekarpenak

Erantsitakoak edo azpimarratzekoak diren alderdiak:

- Euskararen irudia eta prestigioari lotuta, 4.1.3.ari hizkuntza-praktikak kontzeptua eranstea proposatu da, pertsonen erreferentzialtasunarekin lotuta.
- Hizkuntza-paisaia gizarte-erabileraren atalean jaso da batik bat (1.6.), baina prestigioarekin eta ikusgarritasunarekin ere lotu behar da (4.3.).
- Umeentzako jarduerak antolatzerakoan 'diskriminazio positiboa' egitea, hau da, euskara elementu nagusia izatea taldeak antolatzerakoan, lehenbizi eskaini dezagun euskarakoa. Aipatu da baita ere, diskriminazio positiboa kontzeptua ekintza positiboarengatik ordeztzea interesgarria izan daitekeela. (1.5.arekin lotua).
- Haur eta nerabeak euskaraz sozializatzeko prozesua sendotzeko, 2.2.arekin lotuta, hainbat ekarpen egin dira:
 - o G ereduan dabilzaneiei eta/edo kanpotik etorri direnen seme-alabei zuzendutako ekintzak antolatu behar dira, euskarara hurbiltzeko helburuarekin.
 - o A ereduan eskolatuak daudenei ere euskara hurbiltzea. Gurasoen aldetik eskaria dago euskararekin harreman estua ez duten haur eta nerabeentzako programa bereziak abian jartzeko.
 - o D eredukoek arreta behar dute, baina aipatu da, arreta soilik D ereduan jartzeak

eragin duela A ereduaren dauden zenbait familia interesdun bidean galtzea.

- Euskara toki ezberdinetara iristeko eta batik bat, urrun sentitzen duten populazioarengana iristeko, toponimiarekin lan polita egin daitekeela aipatu da, egun gizartean erabiltzen diren hitzak eta euskarazko jatorria dutenak, hautatu, azaldu eta hedatuz (1.9.aren lotuta).
- Euskara ekonomia eragile izatea, ideia oso garrantzitsua da eta indartu behar da. Euskaraz lan egin eta euskaraz ekoizten duen masa eta bolumena badago, eta horrek aitortza beharko luke. (5.3.aren lotuta)

Bileran jasotako iritziak eta ekarpenak


Zalantza eragiten duten alderdiak:

- Finantziak badago? Nondik atera?
- Hedabideen diru-laguntza irizpideak nola banatuko diren. Proposamena da euskarazko hedabideak lehenestea (1.4.aren lotuta)..
- Erdarazko hedabideak giltzarri izan daitezke erdal komunitatean eragiteko lan pedagogikoa egiteko orduan (1.4.aren lotuta).
- Udalak aisialdi/kultura programak garatzeko ekonomikoki kargatuta daude, ez dute nahikoa baliabide programak abian jartzeko. Gobernuak horretan lagun dezake?
- Euskararen erabilera ohiko egin eta balioestea. Nola? (1.1.3.aren lotuta)
- IKTeekin lotuta, euskarazko aplikazioak euskaraz jarri ditzagun eta horretara ausartu gaituzen, laguntzak behar ditugu. Adibidez, mugikorra euskaraz konfiguratzeko badugu baina pantaila batean agertzen dena ulertzen ez badugu, segituan B hizkuntza batean kontsultatzeko aukera izatea. Euskaldun bezala ditugun segurtasun-ezei aurre egiteko neurri zehatzak behar ditugu (1.3.aren lotuta).
- Euskara ekonomia eragilea izatearen helburua ausarta da. Ondo baloratu da, baina erritmoekin kontuz ibili behar gara, eta mezuarekin ere kontuz ibili behar gara, beldurrik sortu gabe. Diskurtsoak landu eta hobetu behar ditugu, errealitate guztiak kontuan hartuz, borondateak bilatuz eta ekintzen progresibitatea bilatu behar dugu. Mezuak positiboa izan behar du, hizkuntza errespetuaren kultura sustatzea helburu, hizkuntza-aniztasunarekin lotu, aldarrikapen-mezuetatik atera, eta legitimitate-giroa sortu.

Bileraren balorazioa

Bakoitzak hitz batez baloratu du saioa eta saioan landutakoa:

- Hurbiltasuna
- Positiboa
- Oso aberasgarria



- Arnasgunea
- Talde txikia baina emankorra

Eta saioaren balorazioa orokorra egiteko, balorazio-orria bete dute. Hona emaitza:

BILERAREN BALORAZIO-ORRIA (Sektore-bilera: EUSKARA)

BALORAZIOA				
BILERAREN ORDUTEGIA ETA IRAUPENA EGOKIAK IZAN DIRA		1		3
GAIAK LANTZEKO MODUA GUSTATU ZAIT			1	3
BILERAREKIKO ESPEKTATIBAK BETE DIRA			1	3
BILERA AURRETIK JASOTAKO INFORMAZIO NAHIKOA IZAN DA			3	1
GIROA ATSEGINA IZAN DA				4
PLAN ESTRATEGIKORAKO EKARPEN INTERESGARRIAK EGIN DIRA			2	1
GAUZA BERRIAK IKASI DITUT		1	2	1
BILERAN PARTE-HARTZEAK AURRERA BEGIRAKO URRATSETARAKO MOTIBATU EGIN NAU			1	3
HARREMAN ETA SARE BERRIAK ERAIKI DIRA			3	1
BILERAN PARTE HARTZEAK ASETU NAU			1	3

EGIN NAHI DITUZUN OHARRAK:

- Eskerrak ematea halako saio bat antolatzeagatik. Eskertzekoa da hurbiltasun hau.